Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA



# HAUR HEZKUNTZA

# 2. MODULUA: ESKOLA ETA CURRICULUMA

## MODULUKO IRAKAS-GIDA

2014-2015

**AURKIBIDEA**


| | |
|---|---|
| Sarrera………………………………………...... | 2. or. |
| 1. Testuingurua………………………………. | 3. or. |
| 2. Helburuak eta gaitasunak………………… | 4. or. |
| 3. Lanaren garapena…………….. …………. | 5. or. |
| 4. Gaia eta egoera…..…………………………. | 7. or. |
| 5. Kronograma orientagarria…………………. | 8. or. |
| 6. Ebaluazio irizpideak……………………….. | 9. or. |
| 7. Oinarrizko bibliografia…………………….. | 12. or. |
| 8. Eranskina: salbuespenak .......................... | 13. or. |
| 9. Irakasgaien Irakas-Gidak ........................... | 14. or. |

**SARRERA**

Irakasle izateko titulazio berrien ezarpen etapa honetan, aldaketa handiak gertatzen ari dira irakaskuntza ulertzeko moduan. Gizarte eskaerak aldatu egin dira eta, beraz, irakasle izateko hasierako prestakuntza “ikasten ikastea” goiburuan oinarritzen da.

Ideia hori abiapuntutzat hartuta, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolak beste prestakuntza egitura bat hautatu du, diziplina elkarketaren ordez diziplinartekotasuna eta banakako lanaren ordez elkarlana indartuko dituena. Egitura berri hori egitura modularra da.

Lauhileko bereko irakasgai guztiek modulu bat osatzen dute; hala, beraz, irakasgai bakoitzak bere esparru akademikoa izango du, baina kreditu bat lagako du Moduluko Diziplinarteko Lana (DAL) egiteko. Kreditu horiek lauhileko horretan irakasten duen irakasle taldeak gainbegiratuko ditu eta talde hori arduratuko da ikasleek elkarlanean egin beharreko diziplinarteko lana diseinatzeaz eta ebaluatzeaz.

Ikaskuntza kooperatiboa estrategia didaktiko bat da. Horren baitan, ikasgela talde txikitan (5-7 pertsona) antolatzen da eta ikasleek koordinaziopean lan egiten dute eginkizun akademikoak egiteko eta beren ikasteko prozesua garatzeko. Egoera horretan, parte-hartzaileen helburuak elkarri lotuta daude; alegia, “besteek beren helburuak gauzatzen badituzte bakarrik gauzatu ahal izango ditu norberak bereak”.

Haur Hezkuntzako titulazioko 2. modulu honetan, irakasleek haur osasunaren gaia lantzea erabaki dute, hain zuzen ere, elikadura.

1. moduluan bezala, Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntzaren (AOI) metodologia erabiliko da Moduluko Diziplinarteko Lana egiteko. Lanak 5 kredituko balioa izango du (gutxi gorabehera 125 ordu).

## 1.- TESTUINGURUA

2. modulua, “**Eskola eta curriculuma**”, Haur Hezkuntzako Graduko 1. mailan gauzatzen da, bigarren lauhilekoan.

**Moduluko Diziplinarteko Lanak** 5 kredituko balioa du. Kreditu horiek honako irakasgai hauei dagozkie:

*Didaktika Orokorra*

*Musika Adierazpenaren Garapena I*

*Hezkuntza Psikologia*

*Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan I*

*Garapen Psikomotorra I*

Lan honetan erabiliko den **metodologia** Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza (AOI) da.

**DALa antolatzerakoan** ondorengo arauei jarraituko zaie:

1. Lana egiteko ikasle taldeak lauhilekoaren hasieran argitaratuko dira, baina 1. moduluan sortutakoak mantenduko dira, eta talde bakoitzari tutore bana esleituko zaio. Tutoreak aipatu irakasgairen bateko irakasleak izango dira.
2. Lanaren lehenengo fasea eskolak hasi eta 4. astean egingo da (otsailak 16-20).
3. Lana egiteko, ikasleek 125 ordu behar izango dituzte (5 kreditu), 9 astetan banatuta. Horietatik 2 aste osotan (50 ordu) ikasleek bertaratu egin behar dute eta eskolak izango dituzte irakasgai guztietan, nola magistralak eta praktikoak. DALaren gainerako orduetan ez dute bertaratu behar. Ikasleak astean batez beste 12 ordu eskaini behar dizkio lanari.
4. Gutxienez bina tutoretza saio egingo dira talde bakoitzarekin.

## 2- DALaren HELBURUAK ETA LANDU BEHARREKO GAITASUNAK

### **Helburuak**

1. Haur hezkuntzan osasunari loturiko alderdiak aztertzea, ikasgelan sor daitezkeen egoeretan, baita horren guztiaren ondorioak ere, eta irtenbideak proposatzea, arrazoituta.
2. Aukeratutako arazoa aztertzea eta modulua osatzen duten arloekin modu argi eta koherentean erlazionatzea.
3. Mintzaira artistikoek eskaintzen dituzten adierazpen eta komunikazio aukerak eta aukera didaktikoak erabiltzea.
4. Taldeko lanetan erantzukizunez, zentzu kritikoz eta sormenez parte hartzea eta lanean kontzentratzea.
5. Hezkuntzari eta osasunari buruzko hausnarketa pizten duten proposamenak diseinatzea, haur hezkuntzako ikasleengan erantzukizunezko balioak eta jarrerak bultzatuta.
6. Taldeko lanak aurkeztea, komunikatzeko bide gisa mintzaira artistikoak erabilita.

Diziplinarteko lana eginda garatu behar diren **gaitasunak**.

Ikasleak honako hauetarako gai izatea:

G1: Ikasleak osasunari loturiko alderdiak lantzera behartzen dituzten hezkuntza egoerak aztertzea, baita hainbat esparrutan dituzten ondorioak ere, bereziki familiekiko lanean.

G2: Oinarrizko estrategiak erabiltzea (adibidez, gizartea ikuspegi kritiko batetik aztertzea edo esperientziak eta iritziak trukatzea), norberaren balioak argitzeko eta bizimodu bidezkoagoak eraikitzen lagunduko duten jarrera pertsonalak hartzeko bitarteko gisa.

G3: Taldean lan egitea eta partaidetza, erantzukizuna, autoestimua, sormena, adiskidetasuna, askatasuna, lasaitasuna, dibertsioa, bizipoza eta uneko jardueretako kontzentrazioa bultzatzea.

G4: Mintzaira artistikoak –gorputz eta ikus adierazpena eta musika– gizarte gaitasunen garapen praktikora zuzendutako estrategia didaktiko ludiko eta sormenezkoen diseinuan integratzea.

G5: Askotariko informazio eta komunikazio bitartekoak (IKTak, liburutegiak, fonotekak, eta abar) modu kritikoan erabiltzea, ezagutza iturriak kontsultatzeko eta komunikatzea, ikastea, ikertzea eta elkarlanean aritzea ahalbidetzeko.

G6: Egoki hitz egitea eta idaztea eta adierazpen teknikak erabiltzen jakitea.

## 3.- LANAREN GARAPENA

Diziplinarteko lanaren faseak (lan modularra)

A) Lantaldeek hasierako “arazoa” edo egoera aztertuko dute.

Egoera ulertzeko zalantzak adierazi (terminologia, kontzeptuak, egoerak, eta abar) eta denei arazoaren askotariko alderdien berri eman. Arazoa zehaztu. Zer dakigu arazo edo gai honi buruz? Ezagutzen al dugu antzeko arazorik? Entzun al duzu horren inguruko ezer? Antzekorik bizi izan al dugu?

B) Arazoa konpontzea

Arazoa konpontzeko hainbat irtenbide proposatu (hipotesiak). Taldea osatzen duten pertsonen ekarpenak idatziz jasoko dira: batetik, gaiari buruz dakiguna eta, bestetik, arazoari irtenbidea emateko proposatutako aukerak. Arazo edo gai honi buruz beste ezer jakin edo ikasi behar edo nahi al dugu? Non bilatu? Egin beharrekoak eta informazioa bilatzeko aukerak banatu. Informazioa bilatzeko eta taldeari aurkezteko behar izango den denbora zehaztu.

- Informazioa bilatu, hautatu eta aztertu.

- Emaitzak taldeari aurkeztu. Informazio berria aztertu, arazoa eta horri konponbidea emateko hipotesiak berriro zehaztu eta arazoa konpontzeko zer egin litekeen proposatu. Arazoaren arrazoiak, jatorria eta ondorioak ezagutzea da helburua, moduluko irakasgaiekiko izan ditzaketen ikuspegi posible guztietatik aztertzea, eta funtsezko alderdiak eta esku-hartze ildo posibleak antzematea. Kritika eta hausnarketa: ikertutakoaren zergatia baloratu, “ezagutu berria” zalantzan jartzea eragin eta, hala, balioak hartzea edo, gutxienez, errealitatearekiko jarrera kritikoa izatea sustatu.

C) Jardun bat diseinatzerakoan ezagutza berriak aplikatzea.

Ikasgelarako eskuhartze proposamen bat diseinatu; Haur Hezkuntzako maila/ziklo zehatz bateko ikasleentzako irakatsi eta ikasteko proposamen bat izango da.

Ikasgelarako proposamen hau sortutako arazoa konpontzeko ebazpenaren zatia izango da eta aldi berean, lanaren esparru teorikoan agertzen diren edukietan oinarrituko da. Horrez gain, proposamen honek musikaren, plastikaren eta gorputz adierazpenaren arloak integratuko ditu, eta ikasleen motibazioan/ sentsibilizazioan jarriko du arreta berezia, baina alderdi ludikoak ahaztu gabe.

D) Emaitzen komunikazioa.

Eskuhartze proposamena moduluko gainerako ikasleen eta irakasleen aurrean aurkeztuko da, DALaren azken astean.

E) Ikasitakoaz eta jarraitutako prozesuaz ebaluaketa, ondorioen zehaztapena eta tutoreari entregatu beharreko lanaren azken bertsioa prestatzea.

Taldeak tutoreari entregatuko dion lanak ondorengo hauek barne hartuko ditu:

- Arazoa konpontzeko jarraitutako prozesuari buruzko txostena. Bertan, urratsetako bakoitzean zer informazio lortu den eta taldeak zer ekarpen adostu dituen zehaztuko dira.
- Haur hezkuntzako talde batentzako irakatsi eta ikasteko proposamena, lanaren esparru teorikoko edukiak aplikatuko dituena eta musikaren, plastikaren eta gorputz adierazpenaren arloak integratuko dituena.
- Taldearen bileren aktak.
- Taldeko eta banakako hausnarketa/autoebaluazioa.
- Eranskinak eta arazoa konpontzeko erabilitako dokumentazio osagarria.

Lanak unibertsitateko lan orok bete beharreko ezaugarriak izango ditu formatuari, beste batzuen ekarpenei, bibliografia aipamenei, zehaztasunari, argitasunari, eta abarri dagokienez.

## 4.- LANAREN GAIA ETA EGOERA.

ARAZOAREN EGOERA: SARRERA

Gaur egungo gizartean, haurrek eta helduek batzuetan gure funtzionamendurako, gorputzerako eta adimenerako benetan garrantzitsua dena ahazteraino garamatzan bizi erritmo bat dugu. Ikastetxeok hainbat modutan lagundu behar dugu heziketa horretan. Modu horietako bat haurren elikadura koordinatuta eta esparru ezberdinetatik lantzea litzateke. Gainera, eta azken urteotan bereziki, jateko gogoaren fisiologiari buruzko ezagutzak nabarmen egin du aurrera eta elikagaiak irensteko prozesu konplexua ulertzen lagun diezaguke. Hala ere, harrigarria izaten jarraitzen du haurren jateko gogoari buruz zenbat aurreiritzi dauden ikusteak.

Elikaduraren garrantziari eta eskolak haurren elikaduran duen eginkizunari buruz hausnartu ondoren, haur hezkuntzako ikasgeletan isla daitekeen egoera bat proposatu dugu.

***Egoera. Elikadura eta osasuna: elikagaiak ikasgelan***

*Miren 4 urteko ikasle talde bateko irakaslea da Haur Hezkuntzako eskola publiko batean.*

*Azken bi ikasturteetan badago gai bat buruan bueltaka dabilkiona, hamaiketakoarena. Mirenek pentsatu du ondo legokeela bere ikasleek hamaiketakoa etxetik ekartzea.*

*Urte hauetan gurasoen iritzi desberdinak entzuteko aukera izan du. Zenbait gurasoren ustez, hobe da haurrek gustukoen dituzten elikagaiak ekartzea, jango dituztela bermatzeko. Beste batzuen iritziz, aukera bikaina da beste gauza batzuk jatera ohitzeko. Beste zenbaiten aburuz, adin horretarako osasungarriena dena ekarri behar lukete eskolara. Beste batzuen ustez, besteak ere kontuan izan behar dira eta, nonahi iragarritakoak izan arren, garestiegiak ez diren gauzak ekarri behar lituzkete. Badira beste zenbait neska edo mutila izan elikagai ezberdinak ekarri behar dituztela pentsatzen dutenak ere.*

*Mirenek hau guztia komentatu die bere lankideei ziklo bilera batean; denok ados daude interesgarria izango litzatekeela egoera hau ikasgelan lantzearekin, diziplinarteko gai gisa eta hainbat arlo integratuz, beti ere eskolako lankideekin adostuta baita familiekin ere.*

## 5. LANA EGITEKO BEHIN BEHINEKO KRONOGRAMA ORIENTAGARRIA (Behin betiko kronograma DALaren lehenengo astean aurkeztuko da)

| Saio magistralen/Tutoretza saioen banaketa | Saio magistralak/Tutoretza saioak | Tutoretza saioen artean taldeak egingo duen lana |
|---|---|---|
| Lanaren 1. astea. Otsailak 16, astelehena | **Lehenengo saioa:** Lana egiteko gida irakurtzea eta aztertzea.<br>Saio orokorra: Ikasle guztiek parte hartuko dute. (2:30 h) | |
| Lanaren 1. astea. Otsailak 17-19 | **Bigarren saioa:** Egoera aztertzea eta lanerako plana.<br>Tutoretza saioa. | Bildutako materiala aurkeztea<br>Arlo ezberdinetako ekarpenen inguruko hausnarketa |
| Lanaren 1. astea. Otsailaren 20an | **Hirugarren saioa:** Informazioa aztertzea eta konponbideak proposatzea.<br>Tutoretza saioa. | Bildutako materiala aztertzea eta antolatzea<br>Aurkibide bat prestatzea eta arazoari emandako irtenbidea bilduko duen txosten bat egitea. |
| Lanaren 2. astea. | **Laugarren saioa:** Haur hezkuntzako ikasleentzako proposamen didaktikoa. Tutoretza saioa. | Bildutako ideiak denei aurkeztea. Guztion ideiak erabili eskuhartze proposamena egiten hasteko. |
| Lanaren 2. astea. | **Bosgarren saioa:** Amaierako aurkezpena prestatzea eta txostena egitea. Tutoretza saioa. | Egindako lanari buruz hausnarketa egitea eta aurkezpena martxan jartzea |
| Maiatzaren 4-8an | **Seigarren saioa:** Azken aurkezpena eta ebaluazioa. Saio orokorra: Ikasle guztiek parte hartuko dute. (1:30 h)<br>Antzeko hainbat saio izango dira, egunero bi edo hiru taldek aurkeztuko baitute. | Txostena amaitzea. |

## 6.- IRIZPIDEAK ETA EBALUAZIO PLANA

- Moduluko lana (diziplinarteko lana) amaitutakoan, talde bakoitzak dosier/txosten bat entregatuko dio bere tutoreari, gida honetako 6. orrialdean zehaztu bezala.
- Ikasle guztiek egin behar dute moduluko lana (ikus DALa egiteaz salbuestea, 13. orrian). Honen nota irakasgai guztiei dagokien amaierako notaren % 16 izango da.
- Nota horren % 65 taldeari nota jarri behar dion tutorearen esku egongo da, beste % 25a taldeko autoebaluazioaren esku eta azken %10a banakako autoebaluazioarena izango da.
- Idatzizko txostena (%60), gainerako ikaskideei egindako aurkezpena eta tutoretza saioetako partaidetza (%40) hartuko dira kontuan.
- Irakasgairen bat gainditzen ez bada, baina moduluko lana bai, horri dagokion nota gorde egingo da ohiz kanpoko deialdira arte (uztaila).

Titulazioa modularra denez, eta lanak diziplina arteko edukia duenez, ikasleak jarraikako ebaluazio sisteman **parte hartu ezin badu justifikatutako arrazoiengatik** (lan-arrazoiak, senideak beren kargura izatea, %33ko urritasuna edo hortik gorakoa, maila altuko kirolaria izatea, bidaiak egitea edo dedikazio handia eskatzen duen jarduera artistiko edo kulturalen bat garatzea, goi mailako beste ikasketa batzuekiko bateragarritasuna, kargu politiko, sindikal, elkarte edo GKEren bateko karguren batekiko bateragarritasuna edo bestelakoak), DAL honekin erlazionatutako proposamen lana egin beharko du, baita ahoz defendatu, modulu bakoitzean horretarako zehaztuko den datan.

Egoera horretan dauden ikasleak moduluko koordinatzailearekin (edo titulazioko koordinatzailearekin) jarri beharko dira harremanetan eta honek behar dituzten informazioak emango dizkie, hala nola, lana entregatzeko eta defendatzeko data zein tokia; lan horretarako ez da egongo tutorerik eta ikasleak dagokion arloko irakaslearengana jo beharko du zalantzak argitzeko.

Proba horren balioa modulu honetan DALari dagokion berdina izango da, hau da, 1’6 puntu irakasgai bakoitzaren kalifikazioan.

| Ebaluatu beharreko gaitasunak | Gaitasuna hartu izanaren adierazleak | Ebaluazio jarduerak |
|---|---|---|
| G1 | - Haur hezkuntzako osasunari eta elikadurari lotuta azter daitezkeen oinarrizko kontzeptuak hautatzea<br>- Proposatutako egoera abiapuntutzat hartuta iker daitezkeen galderak eta hipotesiak proposatzea | - Tutoretza saioa<br>- Tutoretza saioa<br>- Idatzizko lana |
| G2 | - Gizartea eta honek osasunari eta elikadurari loturiko gaietan duen jarrera modu kritikoan aztertzea<br>- Modu aktiboan parte hartzea eta esperientziak eta iritziak trukatzea<br>- Ondorio kritikoak argitzea eta azken txostenean sartzea | - Tutoretza saioa<br>- Idatzizko lana<br>- Tutoretza saioa<br>- Idatzizko lana |
| G3 | - Irakasleek ezarritako entrega epeekin bat datorren lanerako plan adostu bat prestatzea<br>- Taldearen eginkizunen banaketa antolatzea<br>- Ikaskideei zer material bildu diren eta lanari zer ekarpen egiten dioten azaltzea<br>- Taldearen indarguneak eta ahulguneak identifikatzea eta hobetu beharreko alderdiak proposatzea<br>- Taldeak egindako lan saioak bilduko dituen txosten bat (aktak) editatzea | - Tutoretza saioa<br>- Taldearen bileraren aktak<br>- Tutoretza saioa<br>- Taldearen bileraren aktak<br>- Taldearen bileraren aktak<br>- Taldearen bileraren aktak |
| G4 | - Amaierako aurkezpenaren eta idatzizko txostenaren arteko koherentzia<br>- Aurkezpenaren batasuna eta koherentzia<br>- Taldekide guztien partaidetza<br>- Sormena eta originaltasuna<br>Moduluko arlo ezberdinak integratuko dituen proposamen didaktiko bat egitea<br>- Gutxienez bi adierazpen mintzaira (musika, plastika eta/edo gorputz heziketa) erabiltzea | - Amaierako aurkezpena<br>- Idatzizko txostena |
| G5 | - Askotariko informazio iturriak erabiltzea<br>- Informazio iturri nagusiak bereiztea: liburuak, artikuluak eta Internet.<br>- Informazio iturri ezberdinen bidez bildutako datuak modu kritikoan aztertzea<br>- Idatzizko txostenean erabili diren askotariko informazio eta komunikazio bitartekoak aipatzea | - Tutoretza saioak<br>- Idatzizko txostena |

| | | |
|---|---|---|
| G6 | - Idatzizko txostenean gidako atal guztiak behar bezala sartzea<br>- Arlo ezberdinetako terminologia espezifikoa erabiltzea; ortografia eta gramatika zuzenak izatea<br>- Aurkeztutako ideiak arrazoitzea<br>- Taldea taldelanaren dinamikara egokitzea; hori agiria modu koherentean antolatuta adieraziko da<br>- Moduluko arlo guztiak integratzea<br>- Ideiak modu ordenatu, koherente eta logikoan aurkeztea<br>- Zentzu kritikoa eta sormena<br>- Proposamena ikasleek elikadura osasungarriari dagokionez dituzten balioak eta jarrerak sustatzeko egokitzea | - Amaierako aurkezpena<br>- Idatzizko txostena |

Data interesgarriak:

DALa egiteko 1. astea: **otsailak 16-20**

DALa egiteko 2. astea: **martxoak 23-27 (behin behinekoa)**

Tutorearekin egin beharreko bilerak: tutoretza orduetan

Aurkezpenetarako astea: **maiatzak 4-8**

Tutoreari txostena/dosierra entregatzea: **maiatzak 11-15**

## 7.- Oinarrizko bibliografia

Akoschky, J., Alsina, P., Díaz, M. eta Giráldez, A. (2008) *La música en la educación infantil*. Bartzelona: Graó.

González, C. (1999). *Mi niño no me come*. Madril: Ed. Temas de hoy.

Bará, J., Domingo, J. & Valero, M. (2011) "Técnicas de aprendizaje cooperativo". Prestakuntza tailerra. Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa. Bartzelona.

Muñoz Díaz, M.J. (2010). Alimentación y salud en la educación infantil. In *En Innovación y experiencias educativas*, 36. zk.

Bará, J., Domingo, J. & Valero, M. (2011) "Técnicas de aprendizaje cooperativo". Prestakuntza tailerra. Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa. Bartzelona.

Escamilla, A. (2009) *Las competencias en la programación de aula*. Bartzelona: Graó.

Escribano, A. & Del Valle, A. (2008) *El aprendizaje basado en problemas*. Madril: Narcea.

Evensen, D.H. & Hmelo, C.E. (ed.). *Problem-based learning. A research perspective on Learning Interactions*. Hilsdale, NJ: Erlbaum

Pease, M.A. & Kuhn, D. (2010). Experimental analysis of the effective components of Problem-Based Learning. In *Science Education*, 94(1), 57.-86. or.

Riaño, M.E., Díaz, M. (koord.) *Fundamentos musicales y didácticos en educación infantil*. Kantabria. Kantabriako Unibertsitatea.

## 8. ERANSKINA

**DALa egiteaz salbuestea**

1. Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango, modulu oso batean matrikulatuta dauden kasuetan izan ezik.

2. Graduko ikasleek DALa egin beharko dute, baldin eta modulu bateko hiru irakasgaitan matrikulatuta badaude, gutxienez. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango.

3. DALa egiteaz salbuespen kasuetan, ikasleak ez du beste frogarik egin beharrik izango, eta irakasgaiaren nota 10etik emango da, DALaren portzentaia aplikatu gabe.

4. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dauzkatelako) irakasgai gehien egiteke ditzuten moduluko DALa egin beharko dute soilik. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute DALa.

# 9. Irakasgaien Irakas-Gidak

# IKASGAIA: ARTE PLASTIKOAK ETA IKUSIZKO KULTURA I

## I. IKASGAIAREN DATUAK:

| | |
|---|---|
| **TITULAZIOA**<br><br>**Haur Hezkuntzako Gradua** | **IZENBURUA**<br><br>Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura<br><br>Haur Hezkuntzan I |
| **Ikasturtea /Modulua:**<br><br>**1**. kurtsoa<br><br>1. modulua: Eskola eta Curriculuma | **ECTS kredituak:**<br><br>6 (3,6 teorikoak y 2,4 praktikoak) |
| **Saila:** Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren didaktika | |

## II. TESTUINGURUA ETA IKASGAIAREN HEZKUNTZA HELBURUAK:

Ikasgai honek Haur Hezkuntzako Graduaren lehenengo ikasturtearen oinarrizko formazioaren atal bat da, eta konkretuki bigarren modulokoa "Eskola eta Curriculuma".

Ikasgaiaren helburu orokorrak honako hauek dira:

- Progresiboki, beren beharrak, lehentasunak, sentimenduak, esperientziak eta errealitatearen irudikapenak adierazteko lengoia ezberdinez baliatzea.
- Egoerak, bizipenak, beharrak eta inguruaren irudikapenetarako gorputz lengoia, eta lengoaia plastikoa, musíkala eta teknologikoa modu aktiboan ikertu eta erabili.
- Familiakoa zein ingurune naturala, soziala eta kulturala ikertu eta behatu. Era berean, inguruaren ekimen sozial eta kulturaletan modu gradualean aktiboki parte hartzeko interesa agertu.
- Lengoaia eta adierazpen modu ezberdinetan gaitasun komunikatzaileak garatu

## III. IKASGAIAREN GAITASUNAK ETA IKASTE-EMAITZAK:

| Gaitasunak | Ikaste-emaitzak |
|---|---|
| E1. Ikus lengoaiak sormenez erabiltzea, kultura ulertzeko, komunikatzeko eta adierazteko tresna gisa. | Lan praktikoen bitartez, era sortzailean ikus lengoaiak adierzpen, komunikazio eta ulerkuntza sozialerako tresna gisa erabiltzen ditu. |

| | |
|---|---|
| E2. Ekoizpen artistikoak eta ikus kulturakoak modu kritikoan aztertzea, beren testuinguruak eta errealitatea ulertzeko beste modu batzuk kontuan hartuz. | Azken proiektu baten bitartez, ekoizpen artistiko eta ikus kulturakoak beren testuinguruan kritikoki adierazi |
| E3. Bizitzaren zehar ekimen plastiko eta ikus kulturakoetan parte hartzeko baliabideak eskuratu, bai eskolan zein eskolatik kanpo, bai zuzenean parte hartuz zein jardueren harrera kritikoa eginez | Ikasturtearen zehar, bai eskolaren testuinguruan zein ingurune sozialean jarrera parte hartzailea, sortzailea eta kritikoa. |
| E. Irakasgaiaren konpetentziak<br><br>T. Zeharkako konpetentziak | |

**IV. IRAKASGAIAREN EDUKIAK:**

| | |
|---|---|
| 1. Gaia<br><br>Arte Plastikoak eta Ikus Kultura | Arte Hezkuntzaren garapenaren bilakaera.<br><br>Erreferente pedagogikoak: Eisner, Gardner, Malaguzzi.<br><br>Oinarrizko kontzeptuak: artearen kontzeptua, interpretazioa, sormena, adierazpen estetikoa,pertzepzioa |
| 2. Gaia.<br><br>Ikus lengoaiak | Irudiaren presentzia gaur eguneko gizartean.<br><br>■ ezaugarriak<br>■ ikus baliabide ezberdinak: artea, publizitatea, mugimenduzko irudia, diseinua<br>Haurtzaroari zuzendutako irudiak<br><br>Irudiaren erabilerak hezkuntzan |
| 3. Gaia<br><br>Ingurunearen hautemate plastikoa. Begiradaren heziketa. | Hezkuntza estetikoa, pertzepzioa<br><br>Ikus kultura, komunikazioa, irudia eta errealitatea<br><br>Irudien analisia |
| 4. Gaia.<br><br>Teknika, prozedura eta baliabide plastikoak. | Aprendizaia sortzailea: oinarrizko ideiak<br><br>Haur hezkuntzan gauzatzea |

**V. METODOLOGIA :**

Irakaslearen parte hartzea, ikasleen talde lana eta banakako lanarekin konbinatzen da. Ikasleen parte hartze aktiboa, elkar lana, hausnarketa eta aprendizaiaren prozesuaren inguruko erantzunkizuna eskatzen da.

**VI. EBALUAZIOA:**

Ebaluazio jarraitua izango da, eta azken nota honako aspektuen oinarrituko da:

- Asistentzia eta parte hartzea bai indibidualki zein taldean.
- Lan teoriko-praktikoak.
- Froga idatzia.

Klasera etortzen ez diren ikasleek azken froga bat egingo dute eta programan agertzen diren lan praktikoak, indibidualak eta taldekoak, entregatu beharko dute.

Ikasgaia aprobatzeko proposatzen diren **mota guztietako jarduerak** gainditu beharko dira.

**VII. BIBLIOGRAFÍA:**


AGUIRRE, I.; Teorías y Prácticas en Educación Artística. Ideas para una revisión pragmática de la experiencia estética. Universidad Pública de Navarra. Pamplona, 2000.

EFLAND, A., FREEDMAN K., STURT P. La educación en el arte postmoderno Paidós, 2003.

EFLAND A. Una historia de la educación artística. Paidós 2002.

EISNER W.E. Educar la visión artística. Paidós Educador, 1995.

FREEDMAN K.(2006): "Enseñar la cultura visual, Curriculum, estética y la vida social del arte" Octaedro, Barcelona

HERNANDEZ , F. Educación y cultura visual. Publicaciones M.C.P.E. de Sevilla, 1997. Edición revisada en Octaedro, serie Intersecciones, 2000.

HERNANDEZ , F. Espigadoras/es de la cultura visual. Otra narrativa para la educación de las artes visuales Octaedro, 2007.

GARDNER H. Educación artística y desarrollo humano. Paidós Educador. Barcelona 1994.

KELLOG R. Análisis de la expresión plástica en preescolar. Cincel 1981.

LOWENFELD V. Y LAMBERT BRITHAIN Desarrollo de la capacidad creadora. Kapelusz, 1970

MARIN VIADEL, R. (Coordinador). Didáctica de la Educación Artística. Pearson Education 2003, Madrid


.

# IRAKASGAIA: GARAPEN PSIKOMOTORRA I

## I. IRAKASGAIAREN EZAUGARRIAK:

| TITULAZIOA | IZENA |
|---|---|
| **HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA** | **Garapen psikomotorra I** |
| **maila / Moduloa:**<br>1º maila.<br>I Moduloa: Eskola eta curriculuma | **ECTS credituak:**<br>6 (3,6 teorikoak 2,4 praktikoak) |
| **Departamentua:** Musica, plastika eta gorputz adierazpenaren didaktica. | |

## II. IRAKASGAIAREN TESTUINGURUA ETA FORMAKUNTZARAKO HELBURUAK:

1. Haur hezkuntzako etapan, garapen psikomotoreak duen garrantzia eta beharra aztertzea eta umearen sozialitate prozesuan jokabide motorrak duen garrantziaz konturatzea.

2. Gizabanakoen garapen psikomotorraren eboluzioa ezagutzea. Lehenengo eta bigarren haurtzaroaren dimentsio ebolutiboa.

3. Haur hezkuntzako klaseetan, psikomotrizitateko eskolatan, umeen jarrera motor desberdinen behaketa lana egitea, aztertzea eta konklusioak ateratzeko gai izatea.

4. Haurraren adierazkortasuna eta espazioa, objetu eta pertsonekin duen harremana bizitzeko, ulertzeko eta sentitzeko gorputzaren bidezko bereganatze sentsomotorea experimentatzea.

5. Praktika motore desberdinen bizipena; jokoa, jolasa eta jolasa jokoa. Psikomotrizitate gela: espazioa, denbora eta materiala.

## III. IRAKASGAIAREN KONPETENTZIAK ETA IRAKASKUNTZAREN EMAITZAK:

| KONPETENTZIAK | IRAKASKUNTZAREN EMAITZAK |
|---|---|
| E.1 Zentzu zinestesiko eta sentsomotoreak biziaraztea  gorputzaren bidez. | Espazioan, denbora eta erlazioetan, bizi, sentitu eta umearen espresibitatea gogoratu al izatea. |
| E2. Praktika psikomotorrak datzan arlo guztietan gaitasunak lortu. | Umearen heltze ibilbidean metodología aproposa erabiltzea. |
| E3. Haur hezkuntzan akkzio motorrak duen garrantziaz sensibilizatzea, arlo afektibo eta kognitiboan | Tradiziozko dualismoa ( gorputza- anima) alde batera utzi eta irakaskuntza integratzailea lantzea. |
| E4. Umeen joko-jolasak pentsamendu erreflexibo eta kritiko bezela baloratzea, Jarrera, balore eta arautegi sortzaile lehengo iturri bezela tratatuz. | Ardura eta demokraziaren lehenengo aztarnak barneratzea. |
| E. Irakasgaiaren konpetentzia zehatzak.<br><br>T. Zeharkako konpetentziak. | |

## IV. IKASGAIAREN EDUKIAK:

| | |
|---|---|
| 1. Gaia: **GARAPEN PSIKOMOTOREKO OINARRIAK.** | **<u>Deskribapena</u>**: Gorputz Eskema. Barnezeptibo eta Kanpozeptibo eskemak. Motrizidadearen errepresentazio mentala. Jarreraren doitzea. Denborazko egituraketa. Espaziozko egituraketa. Oreka. Lateralitatea. Aktibitate neuromuskularra |
| 2. Gaia: **GORPUTZA ETA GIZARTEA.** | **<u>Deskribapena</u>**: Gorputza tresna bezala eta bere funtzionalitatea: Gaitasun pertzeptibo-motoreak eta fisiko-motoreak. Gorputza irudia bezala. |
| 3. Gaia: **GARAPEN PSIKOMOTOREA. OSASUNA ETA ONGIZATEA.** | **<u>Deskibapena</u>**: Praktika psikomotorea prebentzio faktore bezala haurtzaroan. |

| | |
|---|---|
| 4. Gaia: **PRAKTIKA PSIKOMOTOREA** | **Deskribapena:** Haurraren osotasuna: gorputza, afektibitatea eta adimena. Jokua eta mugimendua. Pentsamendutik ekintzarako pasarea. Irudikapena. |
| 5. Gaia: **GORPUTZ ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIO.** | **Deskribapena**: Adierazpena antolatua. Adierazpen librea. Antzerkia. Dantza. Laguntza ekintza. Erlaxazio teknikak. |

## V. IRAKASKUNTZA METODOLOGIA ETA FORMAKUNTZARAKO AKTIBITATEAK:

Konbinatzen da irakaslegoaren erakusketa ikasleen taldeko eta lan indibidualarekin. Biek kontutan hartzen dute: ikasleen parte hartze aktiboa, kolaborazioa, edukien inguruko hausnarketa eta ikaskuntzaren prozesuari buruzko erantzukizuna.

Bai saio teorikoak bai saio praktikoak ikasgaiaren oinarrizko edukien ulermen eta edukien barneratzera abiatuko dira.

## VI. EBALUAZIOA:

Ebaluazio jarraia izango da eta azken nota hurrengo aspektuen batazbetekoa izango da:

- Asistentzia erregularra eta parte hartze aktiboa bai taldeko mailan bai bakarkako lanean.

-Lan teoriko-praktikoak, entregatuak eta aurkeztuak.

-Ezagupen teorikoen inguruko proba teorikoa

Klasera etorriko ez diren ikasleen azkenengo azterketa egin beharko dute eta ikasgai honen ezaugarriengatik programan agertzen diren lan praktikoak aurkeztuko dituzte.

| Aktibitatea | Ebaluazioa |
|---|---|
| Presentziala talde haundian | Azkeneko proba |
| Presentziala talde txikietan | Klasean egindako eztabaidetan egindako ekarpenak (talde baten barruan hitz egiteko eta entzuteko gaitasuna). |

| | |
|---|---|
| | Entregatuak ( Edukinen formulazio eta argudiaketa egokia).<br><br>Auto-ebaluaketa eta ko-ebaluaketa<br><br>Taldeko eta tutoretza indibidualak |
| TIM | Tutoretza periodikoak (adostatutako irakaslearekin)<br><br>Taldeko lana<br><br>Auto-ebaluaketa eta ko-ebaluaketa |

Derrigorrezkoa da **proba bakoitza gainditzea** ikasgaia gainditutzat hartzeko.

**VII. BIBLIOGRAFIA:**


AUCOUTURIER, B. (2004). Los fantasmas de acción. Barcelona. Editorial Graó.

ARNAIZ SÁNCHEZ, P.; RABADÁN MARTÍNEZ, M.; VIVES PEÑALVER, Y. (2001). La psicomotricidad en la escuela. Málaga. Ediciones Aljibe.

MERCÉ BONASTRE, SUSANA FUSTÉ. Psicomotricidad y vida cotidiana (0-3).Col. Biblioteca de Infantil n-º20. Ed. Graó.

LE BOULCH, J. (1969). La educación por el movimiento en la edad escolar. Buenos Aires. Editorial Paidós.

PARLEBAS (P).- Elementos de sociología del deporte. Málaga: Junta de Andalucía, 1988.

PARLEBAS (P).- Juegos, deporte y sociedad: léxico de praxiologia motriz. (2001). Editorial Paidotribo, s.l.

## IRAKASGAIA: Didaktika Orokorra

# I. IRAKASGAIAREN DATUAK:

| **Titulazioa**<br><br>Haur Hezkuntzako Gradua | **Izena**<br><br>Didaktika Orokorra |
|---|---|
| **Kurtsoa / Modulua:**<br><br>1.maila.<br><br>1.modulua: Eskola eta curriculuma | **ECTS kredituak:**<br><br>6 (3,6 teorikoak eta 2,4 praktikoak) |
| **Saila:** Didaktika eta Eskola Antolakuntza | |

### II. IRAKASGAIAREN TESTUINGURATZEA ETA HELBURUAK:

Irakasgai hau Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Graduetan oinarrizko formakuntza barruan kokatzen da. “Eskola eta curriculuma” izena duen bigarren moduluan, hain zuzen. Diziplina honetan irakaste-ikaste prozesuak eta curriculuma ulertzeko eta analizatzeko lehen urratsak ematen dira. Irakaskuntzari heltzen zaio jarduera profesional gisa. Lehen mailan kokatuta, ikasleari erraztu beharko dizkio irakasleen zeregin batzuetako prestaketa praktikoa zein teorikoa. Plangintza, ebaluazioa, irakaste-ikaste prozesuaren erlazioa eta baliabideak landuko dira, beti ere, irakaskuntzarako dauden hainbat planteamendu ezagutuz eta hausnartuz, eta irakaste-taldeen barneko lana eta hezkuntza maila honetako irakasleen tutoretza funtzioa ahaztu barik.

Didaktika Orokorra irakasgaiaren helburu orokorrak hauek dira:

- Irakasleen garapen pertsonal eta profesionalarekiko, beraien etengabeko prestakuntzarekiko, lankidetza-kulturarekiko eta taldelanarekiko jarrera positiboak mantendu.
- Simulatuak zein errealak diren kasuetan eta egoeretan, praktika hausnartzaileak eta berritzaileak erabili.
- Hezkuntza hobekuntzarako ekintza-proposamenak egin (planifikazioa, ebaluazio planak...) irakaste-ikaste egoera zehatzetara ezagutzak eta tresnak aplikatuz.

## III.- IRAKASGAIAREN KONPETENTZIAK ETA IKASTEAREN EMAITZAK:

| **KONPETENTZIAK** (E: espezifikoak; Z: zeharkakoak) | **IKASTEAREN EMAITZAK** |
|---|---|
